

BERROBI . Informatizazioa heldu da Berrobiko Udal Liburutegira

Begoña Olamusu liburutegiko arduradunak, 2006. urteko datuak aurkezteaz gain, aurten izango diren ekintza eta berrikuntzak jakinarazi ditu

Asier imaz

Berrobiko Udal Liburutegiko arduradunak, Begoña Olamusuk, 2006ko datuak aurkeztu ditu. Bazkideak eta maileguak goruntza joan ziren joan zen urtean. Datu hauek eskuan, gustura eta aurtengo urteari gogotsu aurre egiteko asmoz aurkitzen zen arduraduna. Informatizazioa Berrobiko liburutegira iritsi dela irrifarre artean esan ondoren, aurtengo urteko erronkak aztertu zituen Olamusuk. Liburuak ordenagailuan sailkatzen hasi nintzen orain dela hilabete pare bat. Sailkaturiko hauek, liburutegien arteko mailegu sarean aurkitzen dira. Beste liburutegietatik hona edo gu euren gana joan gaitezke modu honetan liburu eskaerak egitera. Txartel berriak ere egiten hasi gara, beste liburutegietan maileguak egiteko aukera ematen duten txartel berriak.

Emaitza berriekin gustura azaldu zen Olamusu. Mailegu kopurua aurreko urtetik %20 igo zen 2006an. 11 bazkide berri ere lortu zituen liburutegiak eta erabiltzaileen gehiengoa haurrak diren arren, gazteak urbiltzen ere hasi omen dira; Poza berezia ematen du herriko gazteak etortzen direnean, dio arduradunak.

Azkenik, aurreko urtean bezala, aurten ere ekitaldi ezberdinak antolatuko dituztela jakinerazten digu Olamusuk, aurreko urtean antolaturiko ipuin kontalariak, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, literatur lehiaketa eta hainbat ekitaldik aurten ere jarraipena izango dute. Apirilean izango da, esaterako, V. Literatur lehiaketa, asmo berriekin etorriko da gainera aurtengo edizioa, lan irabazleak liburuxka batean elkartu nahi nituzke, gero argitaratuak izateko